# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia Iruñean, 1999ko irailaren 23an 4 ZK.


**A U R K I B I D E A**


E SAILA:

**Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatu dute eskola-garraioari buruzko plan bat egituratu dezan. María Isabel Arboniés Bermejo eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreek aurkeztua (2. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nazioko Gobernuari eskatu diote gutxieneko pentsioak eta kotizaziorik gabekoak igo ditzala 1999ko ekitaldian. «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (3. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatu dute eskola-garraioari buruzko plan bat egin dezan. «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (4. or.).

—Ekialdeko Timorko herriari buruzko adierazpen politikoa. Bozeramaileen Batzordeak onetsia (5. or.).

G SAILA:

**Deialdiak, Iragarkiak eta Parlamentuko Informazioa:**

—Nafarroako Parlamentuko Batzordeen osaera (6. or.).

—1999ko irailean Biltzarrean gertatu alta eta baja (9. or.).

—Esteban Garijo Pérez jauna «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentuko Taldean sartzea (9. or.).

—Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. Izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda (10. or.).

—Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostuak, euskara itzultzaile hiru lanpostu huts, oposizio-lehiaketaren bidez betetzekoa. Izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda (11. or.).

I SAILA:

**Parlamentuko Jarduera:**

—1999ko uztailean egindako bilerak (12. or.).

—1999ko uztailean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (12. or.).

—1999ko abuztuan egindako bilerak (16. or.).

—1999ko abuztuan Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (16. or.).

**E saila:**
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

# Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatu dute eskola-garraioari buruzko plan bat egituratu dezan

*MARIA ISABEL ARBONIES BERMEJO ETA BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARIO ANDREEK AURKEZTUA*

María Isabel Arboniés Bermejo eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreek ondoko mozioa aurkeztu dute: “Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatu dute eskola-garraioari buruzko plan bat egituratu dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Taldeek eta Foru Parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko irailaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### MOZIOAREN EDUKIA

María Isabel Arboniés Bermejok eta Begoña Errazti Esnalek, Ezker Batua eta Eusko Alkartasuna/PNVko foru parlamentarioek ondoko mozioa aurkeztu dute:

Aurreko legegintzaldian eskola garraioari buruzko mozio bat defenditu genuen (eta onetsi egin zen). Bertan, Gobernuari (Hezkuntza eta Kultura Departamentuari) eskatzen genion zerbitzu horren alderdiak (ibilbideak, zaintzaileak eta abar) bilduko zituen plan bat, behar bezalako eskola garraioa bermatzeko.

Departamentuak iragan ikasturteko ibilbideak zehaztu baizik egiten ez zuen plana aurkeztu zuen, baina ez zion erantzunik ematen eztabaidatutakoari, hots, zaintzaileen beharrizanari.

1999-2000 ikasturtea hasi da eta gai horretan, batez ere landa-eremuetan, arazoak daudela jakin izan dugu.

Orduan egin genuen defentsa berretsi egin nahi dugu, eta, horrenbestez, ondoko mozioa aurkezten dugu Hezkuntza eta Kultura Batzordean defenditzeko.

Mozioa:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen du eskola garraioari buruzko plan bat, egin dezan hezkuntz zerbitzua izanik bertan biltzen diren alderdiak aintzat hartu eta ikasleak bidean zaintzeari buruzkoak mugatzen dituena.

Iruñean, 1999ko irailaren 13an

Foru Parlamentarioek: María Isabel Arboniés Bermejo eta Begoña Errazti Esnal

# Mozioa. Horren bidez, Nazioko Gobernuari eskatu diote gutxieneko pentsioak eta kotizaziorik gabekoak igo ditzala 1999ko ekitaldian

*«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuari eskatu diote gutxieneko pentsioak eta kotizaziorik gabekoak igo ditzala 1999ko ekitaldian".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Taldeek eta Foru Parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko irailaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## MOZIOAREN EDUKIA

Juan José Lizarbe Baztánek, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeko bozeramaileak, Biltzarreko erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaida dadin: Mozioa, Nazioko Gobernuak 1999ko ekitaldian kotizaziopeko eta kotizaziorik gabeko gutxieneko pentsioak igo ditzan.

Zioen azalpena

Gizarte Segurantzako sisteman gutxieneko mailetan eta bestelako errentarik gabe dauden pentsiodunen bizi-baldintzak oso eskasak dira. Botere publikoek nahitaez lagundu behar diete.

Estatuko 1999rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean xedatutakoari jarraiki, pentsiodun horiek % 1,8ko igoera izan dute Nafarroan; hau da, Espainia osoan urte horretarako aurreikusitako Kontsumorako Prezioen Indizearen igoera bera. Zoritxarrez, hain dira apalak portzentaia hori aplikatzen zaien zenbatekoak ezen, praktikan, igoera 303 pezetakoa baita zurztasuneko pentsioetarako, eta 1.190 pezetakoa familia karga duten 65 urtetik gorako pentsiodunendako.

Egoera hori are okerragoa da kotizaziorik gabeko erretiro-pentsioa eta elbarri-pentsioa jasotzen dutenen kasuan. Izan ere, 1999an Kontsumorako Prezioen Indizeari dagokion portzentaia igo zaie horiei euren pentsioetan, kotizaziopeko pentsioetarako erabakitako igoera bere horretan aplikatu baitzaie.

Igoera txiki horiek ez datoz bat Gobernuak darabilen Espainia ongi dabilelako leloarekin, zeinak errenta ertain eta altuen mesedetan PFEZaren aldaketak egitea uzten baitu. Bestalde, kontu publikoak hain dira saneatuak Nazioko Gobernuaren esanetan, ezen bidezkoa baita konpainia elektriko handiei bilioi bat pezeta aurreratzea sektorearen liberalizazioari, diotenez, aurre egitearren.

Halako aurrekariak ikusita –eta horien moduko beste horrenbeste adibide eman daiteke ikusteko ziklo ekonomikoko emaitzak ez direla justizia sozialari begira banatzen ari– "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldearen ustez, Gobernuak kotizaziopeko eta kotizaziorik gabeko gutxieneko pentsioetarako erabakitako igoera ez da aski, zeren egoera ekonomiko on honek ahalbidetu egin beharko bailuke elkartasunez jokatzea oparoaldi ekonomikoari etekina ateratzeko aukera gutxien duten taldeekin, zaharrekin eta elbarriekin alegia.

Egoera honetan, eta kontuan izanik ekonomiaren martxa eta Gobernuak aurreikusten duen hazkundea, logikoena da, horrenbeste baliabide publiko errenta altuagoko taldeen egoera hobetzeko gorde beharrean, pentsiodunak ere egoera oparoaz baliatzea.

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldearen aburuz, legezko da Nazioko Gobernuak herritar horien pentsioak Estatuaren fiskalitate orokorraren kargura hobetzea; hori horrela ez bada, Nafarroako Foru Komunitateak hartu beharko luke bere baliabide berekien kargura pentsionista horien bizi-baldintzak hobetzeko ardura.

Esandako guztiarengatik, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Mozioaren testua

Lehena. Egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuz, egoki da Nazioko Gobernuak 1999ko kotizaziopeko eta kotizaziorik gabeko gutxieneko pentsioak KPI baino gehiago igo ditzan.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nazioko Gobernuari eskatzea 28.000 pezetako urteko igoera osagarria ezar dezan 1999an, lege dekretu bidez, kotizaziopeko eta kotizaziorik gabeko gutxieneko pentsioak jasotzen dituztenendako. Zenbateko hori 1999ko abenduaren 31 baino lehen ordainduko zaie aparteko ordainsari gisa eta fiskalitate orokorraren kargura finantzatuko da, Estatuko ogasunak Gizarte Segurantzako Diruzaintzari eginen dion 80.634 milioi pezetako ekarpenaren bidez.

Bestalde, Estatuko 2000ko Aurrekontu Orokorretan, kotizaziopeko eta kotizaziorik gabeko gutxieneko pentsioen igoera egiteko oinarria hauxe izanen da: halako pentsioetarako Estatuko 1999rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean ezarritako zenbatekoari aurreko atalean finkaturiko igoera gehigarria gehitzetik ateratzen dena.

Bigarrena. Mozio hau Nazioko Gobernuari, Diputatuen Kongresuko Mahaiari, Senatuko Mahaiari eta Gorte Nagusietako parlamentuko taldeei igortzea.

Iruñean, 1999ko irailaren 15ean

Bozeramailea: Juan José Lizarbe Baztán

---

# Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatu dute eskola-garraioari buruzko plan bat egin dezan

*«EUSKAL HERRITARROK» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

«Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatu dute eskola-garraioari buruzko plan bat egin dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Taldeek eta Foru Parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko irailaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## MOZIOAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

1999-2000 ikasturtearen hasierak agerian utzi du, berriro ere, eskola garraioaren arazoa.

Iaz gertatutakoa kontuan hartuz eta eskola garraioaren arazoa luza ez dadin, beharrezkoa da eskola garraioari buruzko plan berri bat egitea, behin betiko irtenbide teknikoak eman eta egungo egoeraren azterketa bat egitera mugatuko ez dena, indarra duen garraio planak hori baino ez baitu egiten.

Hori dela eta, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

Parlamentuak Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen du, hilabeteko epean gehienez ere, zerbitzuaren alderdi guztiak (ibilbideak, zaintzaileak eta abar) aintzat hartuz eskola garraioari buruzko plana egin eta Parlamentuan aurkez dezan, zerbitzu hori eremu, barruti eta eskualdeen arabera derrigorrezko zein derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzarendako egituratzearren.

Iruñean, 1999ko irailaren 15ean

Foru Parlamentarioa: Félix Puyo Rebollo

---

# Ekialdeko Timorko herriari buruzko adierazpen politikoa

*BOZERAMAILEEN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzordeak, 1999ko irailaren 20an egindako bilkuran, hurrengo adierazpen onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak, Bozeramaileen Batzarraren bidez, salatu egin nahi du Indonesiaren aldeko talde paramilitarrak egiten ari diren genozidioa, eta nazio guztiei dei egiten die horretaz ardura daitezen. Bereziki, Nazio Batuen Erakundeari egiten zaio dei, ez baitu aurrez ikusi beharrezko indarrak bidaltzea; hain zuzen ere, erreferendumaren ondotik timortarren oinarrizko eskubideak bermatzeko.

Nafarroako Parlamentutik kritikatu egin nahi dugu Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluaren atzerapena; bereziki, kide iraunkorrak izan duten atzerapena, ez baitute nazioarteko zuzenbidea lehenbailehen aplikatu, eta, beraz, ez baitute bake-indarrik bidali Ekialdeko Timorrera gizadiaren aurkako krimenak geldiarazteko.

Orobat, salatu egiten dugu hautsi egin dela Europako herrialdeek sinatutako kode etikoa, giza-eskubideak errespetatzen ez dituzten gobernuei armak ez saltzeari buruzkoa. Horrela, armaz hornitu dira Ekialdeko Timorko herria sarraskitzen ari direnak.

Aurreko guztiagatik, zigorgabetasunarekin amaitzea eskatzen dugu, eta argitu dadila zein diren krimen horien erantzuleak, eta epaitu eta kondenatu ditzatela. Halaber, Nazio Batuen Erakundeko bake-indarrak lehenbailehen bidaltzea eskatzen dugu, eta horien lehentasunak hurrengoak izan daitezela: giza-eskubideen errespetua bermatzea, sarraski hori amaitzea, zuzenbidezko estatua berrezartzea, eta, baita ere, herri horren borondatea -Nazio Batuen Erakundearen babesean, abuztuaren 30ean eginiko erreferendumean adierazi zen- beteko dela bermatzea.

Orobat, Indonesiako indar paramilitarrek armak utz ditzaten eta desmobiliza daitezen eskatzen dugu, eta Indonesiako armadak Ekialdeko Timor utz dezala; errefuxiatu eta barne desplazatuek modu duin eta seguruan itzul daitezela bermatzea ere eskatzen dugu.

Nafarroako Parlamentuak eskatzen du Europako Batasunak azkar eta modu eraginkorrean jardun dezala, eta krisi honetan Espainiako Gobernuak ausart joka, eta utz diezaiola, behin betiko, Indonesiako Gobernuari transferentzia militarrak egiteari, azken zazpi urte hauetan 1.200 milioi pezeta egin baitute gutxi gorabehera; halaber, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio printzipio hauek defenda ditzala Europako Batasunean eta baita Nazio Batuen Erakundean ere.

Nafarroako Parlamentuak, egoera horren aurrean, Ekialdeko Timorren segurtasuna eta zuzenbidezko estatua berrezar daitezen nahi du, erakunde humanitarioak nahiz nazioarteko agentziak biktimenganaino hel daitezen; halaber, hori ahalbidetuko duen nazioarteko lankidetza plan bat abiaraztea nahi du Nafarroako Parlamentuak.

Azkenik, Timorreko eta Saharako gatazkak antzekoak izateagatik, oraintxe, nazio guztien artean, beharrezko neurriak hartzen hasteko eskatzen dugu, Timorren gertaturikoaren modukoak berriz ere gerta ez daitezen."

Iruñean, 1999ko irailaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**G saila:**
**DEIALDIAK, IRAGARKIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

# Nafarroako Parlamentuko Batzordeen osaera

## Ohiko Batzordeak:

### FORU ARAUBIDE BATZORDEA

MAHAIA

Lehendakaria
Javier Sanz Carramiñana jauna (SPN)

Lehendakariordea
Carlos García Adanero jauna (UPN)

Idazkaria
Joxe Pernardo Barrena Arza jauna (EH)

BATZORDEKIDEAK

José Matías Jiménez Lázaro jauna (UPN)
Luis Campoy Zueco jauna (UPN)
Alberto Catalán Higueras jauna (UPN)
Juan González Mateo jauna (UPN)
Amelia Salanueva Murguialday andrea (UPN)
Juan José Lizarbe Baztán jauna (SPN)
Mª Dolores Eguren Apesteguía andrea (SPN)
Shanti Kiroga Astiz jauna (EH)
Juan Cruz Alli Aranguren jauna (NDE)
Felix Mª Taberna Monzón jauna (EB-IU)
Begoña Errazti Esnal andrea (EA/EAJ-PNV)

### EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEA

MAHAIA

Lehendakaria
Carlos Cristóbal García jauna (SPN)

Lehendakariordea
Joxe Pernando Barrena Arza jauna (EH)

Idazkaria
Carlos García Adanero jauna (UPN)

BATZORDEKIDEAK

Amelia Salanueva Murguialday andrea (UPN)
Alberto Catalán Higueras jauna (UPN)
Evelio Gil Zardoya jauna (UPN)
Juan González Mateo jauna (UPN)
Alfredo Jaime Irujo jauna (UPN)
Juan José Lizarbe Baztán jauna (SPN)
Mª Dolores Eguren Apesteguía andrea (SPN)
Félix José Puyo Rebollo jauna (EH)
Juan Cruz Alli Aranguren jauna (NDE)
José Miguel Nuin Moreno jauna (EB-IU)
José Manuel Goikoetxea Askorbe jauna (EA/EAJ-PNV)

**LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEA**

MAHAIA

Lehendakaria
Evelio Gil Zardoya jauna (UPN)

Lehendakariordea
Isabel Arboniés Bermejo andrea (IU-EB)

Idazkaria
Fernando Viedma Molero jauna (SPN)

BATZORDEKIDEAK

Esteban Garijo Pérez jauna (UPN)
Francisco Javier Morrás Iturmendi jauna (UPN)
Pedro Eza Goyeneche jauna (UPN)
Carlos García Adanero jauna (UPN)
José Ramón Urdiáin Martínez jauna (UPN)
Inmaculada Pinilla Baigorri andrea (SPN)
Elena Torres Miranda andrea (SPN)
Joxe Pernando Barrena Arza jauna (EH)
Félix José Puyo Rebollo jauna (EH)
Juan Cruz Alli Aranguren jauna (NDE)
José Manuel Goikoetxea Askorbe jauna (EA/EAJ-PNV)

**TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEA**

MAHAIA

Lehendakaria
Alfredo Jaime Irujo jauna (UPN)

Lehendakariordea
José Mª Aierdi Fernández de Barrena jauna (EA/EAJ-PNV)

Idazkaria
Juan Antonio Andión Gastón jauna (SPN)

BATZORDEKIDEAK

Josefina Bozal Bozal andrea (UPN)
Luis Campoy Zueco jauna (UPN)
Carlos García Adanero jauna (UPN)
José Antonio Rapún León jauna (UPN)
Luis Valero Erro jauna (UPN)
Javier Sanz Carramiñana jauna (SPN)
Inmaculada Pinilla Baigorri andrea (SPN)
Joxe Pernando Barrena Arza jauna (EH)
Milagros Rubio Salvatierra andrea (EH)
Juan Cruz Alli Aranguren jauna (NDE)
Isabel Arboniés Bermejo andrea (EB-IU)

**LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXE-BIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA**

MAHAIA

Lehendakaria
Inmaculada Pinilla Baigorri andrea (SPN)

Lehendakariordea
Milagros Rubio Salvatierra andrea (EH)

Idazkaria
Juan González Mateo jauna (UPN)

BATZORDEKIDEAK

Alfredo Jaime Irujo jauna (UPN)
José Matías Jiménez Lázaro jauna (UPN)
Amelia Salanueva Murguialday andrea (UPN)
José Ramón Urdiáin Martínez jauna (UPN)
Luis Valero Erro jauna (UPN)
Javier Sanz Carramiñana jauna (SPN)
Fernando Viedma Molero jauna (SPN)
Pablo Muñoz Trigo jauna (EH)
Juan Cruz Alli Aranguren jauna (NDE)
José Miguel Nuin Moreno jauna (EB-IU)
José Mª Aierdi Fernández de Barrena jauna (EA/EAJ-PNV)

**HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA**

MAHAIA

Lehendakaria
Mª Isabel Beriáin Luri andrea (UPN)

Lehendakariordea
Félix José Puyo Rebollo jauna (EH)

Idazkaria
Isabel Delgado López andrea (SPN)

BATZORDEKIDEAK

Esteban Garijo Pérez jauna (UPN)
Josefina Bozal Bozal andrea (UPN)
Alberto Catalán Higueras jauna (UPN)
Pedro Eza Goyeneche jauna (UPN)
José Javier Viñes Rueda jauna (UPN)
Juan Antonio Andión Gastón jauna (SPN)
Carolina Castillejo Hernández andrea (SPN)
Aurkene Ortiz Egizabal andrea (EH)
Juan Cruz Alli Aranguren jauna (NDE)
Isabel Arboniés Bermejo andrea (EB-IU)
Begoña Errazti Esnal andrea (EA/EAJ-PNV)

**OSASUN BATZORDEA**

MAHAIA

Lehendakaria
Alberto Catalán Higueras jauna (UPN)

Lehendakariordea
Martín Arbizu Goñi jauna (EH)

Idazkaria
Fernando Viedma Molero jauna (SPN)

BATZORDEKIDEAK

Carlos García Adanero jauna (UPN)
Esteban Garijo Pérez jauna (UPN)
Amelia Salanueva Murguialday andrea (UPN)
Juan González Mateo jauna (UPN)
José Javier Viñes Rueda jauna (UPN)
Elena Torres Miranda andrea (SPN)
Juan Antonio Andión Gastón jauna (SPN)
Shanti Kiroga Astiz jauna (EH)
Andrés Basterra Layana jauna (NDE)
Isabel Arboniés Bermejo andrea (EB-IU)
Begoña Errazti Esnal andrea (EA/EAJ-PNV)

**HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEA**

MAHAIA

Lehendakaria
Elena Torres Miranda andrea (SPN)

Lehendakariordea
Andrés Basterra Layana jauna (NDE)

Idazkaria
Matías Jiménez Lázaro jauna (UPN)

BATZORDEKIDEAK

Amelia Salanueva Murguialday andrea (UPN)
Carlos García Adanero jauna (UPN)
Luis Valero Erro jauna (UPN)
Francisco Javier Morrás Iturmendi jauna (UPN)
M ª Pilar Pérez Aznar andrea (UPN)
Carlos Cristóbal García jauna (SPN)
Javier Sanz Carramiñana jauna (SPN)
Pablo Muñoz Trigo jauna (EH)
Joxe Pernando Barrena Arza jauna (EH)
José Miguel Nuin Moreno jauna (EB-IU)
José Manuel Goikoetxea Askorbe jauna (EA/EAJ-PNV)

**NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA ETA MENDI BATZORDEA**

MAHAIA

Lehendakaria
Mª Pilar Pérez Aznar andrea (UPN)

Lehendakariordea
Andrés Basterra Layana jauna (NDE)

Idazkaria
Isabel Delgado López andrea (SPN)

BATZORDEKIDEAK

Josefina Bozal Bozal andrea (UPN)
Carlos García Adanero jauna (UPN)
Matías Jiménez Lázaro jauna (UPN)
José Antonio Rapún León jauna (UPN)
José Ramón Urdiáin Martínez jauna (UPN)
Carolina Castillejo Hernández andrea (SPN)
Carlos Cristóbal García jauna (SPN)
Pablo Muñoz Trigo jauna (EH)
Félix José Puyo Rebollo jauna (EH)
José Miguel Nuin Moreno jauna (EB-IU)
José Mª Aierdi Fernández de Barrena jauna (EA/EAJ-PNV)

**INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEA**

MAHAIA

Lehendakaria
Carolina Castillejo Hernández andrea (SPN)

Lehendakariordea
José Mª Aierdi Fernández de Barrena jauna (EA/EAJ-PNV)

Idazkaria
Carlos García Adanero jauna (UPN)

BATZORDEKIDEAK

Mª Isabel Beriáin Luri andrea (UPN)
Evelio Gil Zardoya jauna (UPN)
Francisco Javier Morrás Iturmendi jauna (UPN)
Mª Pilar Pérez Aznar andrea (UPN)
José Antonio Rapún León jauna (UPN)
Isabel Delgado López andrea (SPN)
Mª Dolores Eguren Apesteguía andrea (SPN)
Martín Arbizu Goñi jauna (EH)
Félix José Puyo Rebollo jauna (EH)
Andrés Basterra Layana jauna (NDE)
José Miguel Nuin Moreno jauna (EB-IU)

**GIZARTE GAIETAKO BATZORDEA**

MAHAIA

Lehendakaria
Amelia Salanueva Murguialday andrea (UPN)

Lehendakariordea
Isabel Arboniés Bemejo andrea (IU-EB)

Idazkaria
Carolina Castillejo Hernández andrea (SPN)

BATZORDEKIDEAK

Esteban Garijo Pérez jauna (UPN)
Pedro Eza Goyeneche jauna (UPN)
Evelio Gil Zardoya jauna (UPN)
Mª Pilar Pérez Aznar andrea (UPN)
José Antonio Rapún León jauna (UPN)
Mª Dolores Eguren Apesteguía andrea (SPN)
Fernando Viedma Molero jauna (SPN)
Milagros Rubio Salvatierra andrea (EH)
Aurkene Ortiz Egizabal andrea (EH)
Andrés Basterra Layana jauna (NDE)
Begoña Errazti Esnal andrea (EA/EAJ-PNV)

**ERREGELAMENDUKO BATZORDEA**

MAHAIA

Lehendakaria
José Luis Castejón Garrués jauna (SPN)

Lehen Lehendakariordea
Amelia Salanueva Murguialday andrea (UPN)

Bigarren Lehendakariordea
Isabel Arboniés Bermejo andrea (EB-IU)

Lehen Idazkaria
Mª Isabel Beriáin Luri andrea (UPN)

Bigarren Idazkaria
José Mª Aierdi Fernández de Barrena jauna (EA/EAJ-PNV)

BATZORDEKIDEAK

Josefina Bozal Bozal andrea (UPN)
Luis Campoy Zueco jauna (UPN)
Rafael Gurrea Induráin jauna (UPN)
Miguel Sanz Sesma jauna (UPN)
Luis Valero Erro jauna (UPN)
José Javier Viñes Rueda jauna (UPN)
Juan José Lizarbe Baztán jauna (SPN)
Carlos Cristobal García jauna (SPN)
Inmaculada Pinilla Baigorri andrea (SPN)
Shanti Kiroga Astiz jauna (EH)
Félix José Puyo Rebollo jauna (EH)
Javier Del Castillo Bandrés jauna (NDE)
Isabel Arboniés Bermejo andrea (EB-IU)
José Manuel Goikoetxea Askorbe jauna (EA/EAJ-PNV)

## 1999eko irailean Biltzarrean gertatu alta eta baja

Baja: José Luis Alli Fernández jauna

Alta: Esteban Garijo Pérez jauna

Iruñean, 1999ko irailaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Esteban Garijo Pérez jauna «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentuko Taldean sartzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 20n egindako bilkuran, honako hau erabaki zuen: Esteban Garijo Pérez jauna «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentuko Taldean sartu dela jakitun dela adieraztea.

Iruñean, 1999ko irailaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

# Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa

**Izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda**

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdirako eskabideak aurkezteko epea bukatu egin denez (1999ko ekainaren 2ko 48 zk.ko NPAOn eta 1999ko ekainaren 23ko 78 zk.ko NAOn argitaratu zen deialdia), ondoren argitaratzen da onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda, aipatu deialdiaren 4.1. oinarriak xedatuaren arabera.

**Onartuak:**

Aguado Ruiz, Mª Teresa

Aguirre Esparz, Idoia

Agurruza Mutuberría, Joaquín Ramón

Agurruza Mutuberría, Mª Luz

Alduan Chivite, Angel Mª

Alfonso Gaspar, Pablo

Allué Guzmán, Roberto

Ancín Rodríguez, Mª Luz

Antoñanzas Malón, Elías

Aranaz Jiménez, Eduardo

Ardaiz Astrain, Juan

Baranguán Bello, Francisco Javier

Blanco Rodríguez, Yolanda

Calvera de la Fuente, Jorge

Catalán Goñi, Mª Dolores

Dawid Milner, Juan Tadeo

Echeverria Fernández, Félix Jesús

Elía Pitillas, Fernando

Erdozain Eguaras, Nieves

Esteras Cilla, Ana

Garaicoechea Muñoa, Juan Mari

García Martínez, Ricardo

Ibero Gutiérrez, Francisco Javier

Irazoki Zubieta, Javier Leopoldo

Leoz Moriones, María Rosario

Lozano Nuñez, Juan Carlos

Macua Sádaba, Carlos Ezequiel

Martínez de Estibariz Ochagavia, Javier

Martínez Losantos, Alicia Consuelo

Mutilva Contreras, Mª Teresa

Nicuesa Chacón, Javier

Olóriz Larrea, Jesús Ángel

Ortega Navarro, Miguel Angel

Ortín Lasheras, José Alberto

Oscoz Asiain, Aitziber

Osinaga Pérez de Viñaspre, Luis

Perales Villena, Eduardo

Percaz Bados, María Teresa

Ramírez Pérez, Marta

Redín Nicuesa, José Enrique

Rico Videgain, Virginia

Sagardoy Alli, Francisco Javier

San Juan Bonilla, Jesús Manuel

San Martín Osés, Rubén

Sánchez Gómez, José Carlos

Segura Ulayar, Mª José

Sevilla Romero, María Julia

Udaeta Ulibarri, Domingo

Urtasun Estanga, Carlos

Viana Górriz, Alberto

Vidán Astiz, Araceli

Zabalza Cestau, José Luis

**Baztertuak:**

Inor ez.

Iruñean, 1999ko irailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

# Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostuak, euskara itzultzaile hiru lanpostu huts, oposizio-lehiaketaren bidez betetzekoa

**Izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda**

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostuak, euskara itzultzaile hiru lanpostu huts, oposizio-lehiaketaren bidez betetzeko deialdirako eskabideak aurkezteko epea bukatu egin denez (1999ko abuztuaren 10eko 2 zk.ko NPAOn eta 1999ko uztailaren 21eko 90 zk.ko NAOn argitaratu zen deialdia), ondoren argitaratzen da onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda, aipatu deialdiaren 4.1. oinarriak xedatuaren arabera.

**Txanda irekia:**

**Onartuak:**

Ablanedo Larrion, Ane Elixabete

Agirre Sarasola, Pello

Alduncin Navarro, Ana

Arana Bareño, Ander

Aristeguieta Oquiñena, Xabier

Balanzategui Azcoaga, Miren Edurne

Carracedo Gerrikabeitia, Idoia

De Vicente Arbeloa, Francisco Javier

Echanove Arrieta, Aitziber

Etxebarria Ariznabarreta, Monika

Gorrotxategui Mujika, Yon

Haranburu Karrera, Miren Arantza

Irazustabarrena Barriola, Ainhoa

Iribarren Larrea, Mª Teresa

Irizar Apaolaza, Ander

Larrión Galdeano, Fco. José

Lasheras Echegaray, Miren Iosune

Martin Amundarain, Ana Isabel

Olano Irisarri, Mª Carmen

Olasagarre Mendinueta, Yolanda

Ondarra Artieda, Ainara

Osa Alberdi, Aintzane

Oteiza Piera, Miren

Redín Rodríguez, José

Remiro Fernández de Gamboa, Mª Mercedes

Romano Igartua, Miren Nekane

Sagasti Azparren, Ana

Santamaria Urkaregi, Idoia

Ucar Caminos, Mª Angeles

Zuazabeitia Olabe, Miren Edurne

**Baztertuak:**

Inor ez

**Igoera txanda:**

**Onartuak:**

Inor ez

**Baztertuak:**

Inor ez

Iruñean, 1999ko irailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**I Saila:**
**PARLAMENTUKO JARDUERA**

## 1999ko uztailean egindako bilerak

**MAHAIA**

30ean.

**MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA**

5, 15, 20, 26 eta 28an.

**OSOKO BILKURA**

2an:

– Nafarroako Parlamentua eratzeko bilkura.

20, 21, 23 eta 26an:

– Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzarako hautagaiaren berrespenari buruzko eztabaida eta bozketa.

## 1999ko uztailean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

**1ean:**

– Foru Parlamentario hautatu Joxe Pernando Barrena Arza jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Nafarroako Parlamentuak Auzitegi Nazionalari jakinaraz diezaiola José Luis Barrios Martín jaunak derrigorrez zin egin edo hitz eman behar duela Parlamentua eratzeko bilkuran; izan ere, foru parlamentario kargura iristeko ezinbesteko baldintza baita.

– Kontuen Ganbararen idazkia. Harekin batera, Sociedad de Desarrollo de Navarra-Sodenaren arrisku-kapital jarduerari buruzko fiskalizazio txostena.

– Auzitegi Nazionaleko bosgarren epaitegiaren idazkia. Harekin batera, ebazpen bat, Foru Parlamentario hautatu José Luis Barrios Martín jauna uztailaren 2an espetxetik ateratzeari buruzkoa.

– Auzitegi Nazionaleko Zigor Arloko Salaren lehen sailaren idazkia. Harekin batera, Foru Parlamentario hautatu José Luis Barrios Martín jaunaren egoerari buruzko pieza banandua.

